

ADIERAZPEN IDEOLOGIKOA

Alots Gezurraga eta Aitzol Altuna, Nabarra (2008.11.29)

“El entresijo esencial de una nación, se compone de estos dos ingredientes: primero, un proyecto de convivencia total en una empresa común; segundo, la adhesión de los hombres a ese proyecto incitativo”.

José Ortega Gasset “La rebelión de las masas”, 1937

Gaur inoiz baino gehiago, politika zer den argi eduki behar dugu: “Cualquier grupo social con un acervo de fuerza suficiente para alterar el complicado y siempre tenso equilibrio – recuérdese la imagen heracliana de la flecha y el arco- puede considerarse un potencial agente político. Lo primero que ahora necesita para convertirse en tal es cobrar conciencia de su propia especificidad objetiva y traducirla políticamente. Ello significa perfilar conscientemente su identidad en el plano ideológico, delimitar políticamente sus objetivos, esbozar con detalle suficiente las condiciones generales que posibilitan el mantenimiento y/o el desarrollo sin obstáculos de su lugar y su función en la historia”.

Joseba Ariznabarreta “Euskadi, aproximación política” y “Pueblo y Poder”

Politikari uko egiteak edo berau agente inperialisten esku uzteak, gure herrian alderdi politiko eta “banakako terrorismoak” ordezkaturak, heriotza ziurra lekarke.

Boterea eta herria gauza bera dira, boterea da herria gauzatzen duena. Boterea beraz bana ezina da, soilik kontzeptuen mailan bana daitekeena.

Horrela, mementu honetan ez ditugu behar aina garatuak giza boterea osatzen duten hiru botereetatik biga: politikoa eta ekonomikoa hain zuzen, ordea hirugarren botere den botere ideologikoa maila horretan izatera heldu gaitezke. Hiru botere banaezin hauek hauek osatzen dute beraz giza boterea, hauetariko bat indartzean besteak indartzen direlarik: zenbat eta jende gehiago ideologikoki garatuak izan are eta errekurtsio ekonomiko garatuagoak izango ditugu, botere politikoa edo koertzitiboa garatuko delarik, eta hauxe da gure azken helburua.

Herri baten botere politikoa eta ekonomikoa neurtu litezke: armen kopuruaren arabera edo Barne Produktu Gordinaren bidez, esate baterako. Botere ideologikoa neurtzea ordea ezinezkoa da eta horrexegatik inork ez du onartzen ideologikoki beste edonor baino apalagoa denik. Pertsona arruntarentzat ezinezkoa da berea baino maila kultural haundiagokorik dagoenik onartzerik, berea baino hizkuntza “modernoagoarik”, bere herriaren historia hobea duenik edo beste herri hobea gorik dagoenik (inork bere gurasoak aldatuko ez

lituzkeen bezala). Baina militarki okupatua den herri batek zailtasun eta tranpa ugari ditu izango ditu bere biziraupenerako derrigorrezkoa duen botere ideologikoa garatzerakoan, eta egoera hau da tamalez gure errealitate krudela.

Ikastoletan Espainiaren historia irakasten da, bertatik irtetean, gure seme-alabak ez dira gai gureak izan diren 40 Estatu buru edo erregeetariko bakar baten izena aipatzeko, gure historiak ez tutik ere ez dakitelarik (gure jatorritik gaurdaino). Era berean, ez dira gai espainolek "politika" delakoan sartzen dizkiguten ziriak saihesteko; zer esan orduan espainol eta frantses "eskola nazionaletan" ikasten dutenari buruz.

Herriaren ideologia hau martxan da. "indar ideia" hauek emeki emeki herrian errotzen ari direnak guztion elkargune dira: gure Estatu indarrez inbaditua dagoen herria gara, gure helburua Estatu hori askatzea da bihar ere izaten jarraitzeko: hezi gaitezen eta ingurukoak hezi ditzagun gure indarra hareagotzeko helburuz.

XXI. mende hau berriro NABARRAREN mendea izango da, gure arbasoek egin bezala Orreagan frankoen inperialismoa gaindituz Estatu osatzera eraman zuen balentria hura errepikatzea dagokigu. Nabarra Estatu historiak gain errealitatea dugu: espainolek eta frantsesek menpean duten Estatu. Hemen eta orain Nabarrako Estatu ukatzea irabazitako posizio bat galtzea da, eta hori politikan garesti ordaintzen da.

Baina INDAR ideologikoa soilik da zuzena ESTRATEGIKOKIKO GIDATUA bada orduan BOTERE ideologiko bihurtzen delarik, bestela inperialismoak samurki indargabetuko du: bere partidu sistema totalitarioan integratuz, beraien eta gure haurrak atzerritar balira bezala irakasten dituen sistema batean integratuz: "Jakintza boterea da" ("Knowledge is Power", Francis Bacon).

Garaipena ez da honen zai daudenentzat horretarako prestatzen ari direnentzat baino. Gure herria prestatuko da Estatu askatzeko eta aukera berri bat datorrenean ez gehiagotan alferrik galtzeko. Horretarako, herriak buruzagiak behar ditu, unean uneko estrategia markatzeko eta ordua heltzean tiranoa etxerateko. Gidaritza hau izanen da ez beste inor Nabarrako behin behineko gobernu, Estatuaren kimua.

Buruzagitza hau herritik sortua eta babestua izango da inperialismoarentzat helburu asimilatzaile eta errepresiboaren arriskutik at egon dadin: lan mehatxu, famili eraso, hedabide manipulazio, errepresio polizial eta judiziala ekidinez.

Buruzagitza ezak herri honi askatasunerako aukera asko galdu arazi dizkio besteak beste 1936an edo XIX. mendean karlistadetan gure herria armetan altxaturik zegoenean egondako aukerak. Baita hurbilagokoak ere 70. hamarkadan goranahizale batzuek zapuztutakoa.

Aurrerantzean ere izango ditugu askatasunerako aukerak eta hauek heltzean prest egongo gara.

“No es digno de ser libre el pueblo que sufre pacientemente la esclavitud. Mas el pueblo que tiene encadenado el cuerpo, pero libre y altivo el espíritu, es desgraciada víctima, pero no vil esclavo.”

Bizkaitarra nº 28, Areitz Orbelak”, Sabino Arana

“El Estado no es una forma de sociedad que el hombre encuentra dada y en regalo, sino que necesita fraguarla penosamente.”

José Ortega Gasset “La rebelión de las masas”, 1937

LIZARDIren bertso baten moldaketa

NAFAR PIZKUNDEA

Egizute nerekin

Estatu bidea.

Bildu dezagun nun nahi

asaben lorea.

Ta gaur danik gorritu

gure sukaldea.

Ni nor naizen? Asmatu.

Nafar pizkundea.